



Mahats bilketaren azken jaia Mañuetan egin zuten, duela hiru urte. MAHATS BILKETAREN JAIA

Mahats bilketak festa piztuko du

Irailean, Arabako Errioxan mahats bilketa orokortua dagoen momentuan hain zuzen, iritsiko da Lantziegora XXVI. Mahats Bilketaren Festa. Lantziegong egingo dute bigarren, hilaren 18an.

ERREDAKZIOA

Herrialde osoan bezala, Arabako Errioxan ere hilabete asko darabate beroa jasaten, eta mahastiak ez dira libratu. Horregatik, hain zuzen ere, eremu freskoeneko edo ureztatzeko aukera dutenek mahats bilketa aurreratu ahalko dute. Hala, Moredan, Sernan, Oionen, Lapuebla de Labarcan eta Mañuetan, besteak beste, irai-

laren 14an edo 15ean mahatsa biltzen hasi ahalko direla aurreikusten dute, baina Arabako Errioxako gainerako udalerriek hilaren 25etik aurrera ekingo diote mendemari. Bitartean, mahats zuria ari dira biltzen upategi batzuk, eta zeruari so egiten diote, irailan iragarri duten euraren zain.

Ardoaren Etxetikazaldu dutenez, une honetan, Arabako Errioxako

mahastien egoerari buruzko azken txostenean islatutako egoera mantentzen da. Lehorreak "mahatsaren zikloaren bilakaeran nahasmentuak" eragin dituela egiaztatatu dute, bereziki lehorreko mahastietan, ur faltak errendimenduan murrizketa "nabarmena" eragin baitu. Hobeto daude ureztatutako mahastiak, baina azken urteetan mahats bilketa izan denarekin alderatuta, gutxienez hamar eguneko aurrerapena daramate. Mahastien osasunari dagokionez, teknikariek nabarmendu dute oso ona dela, hezetasunik ez izateak ondoen garapena saihestu duelako, eta onddo horiek dira landarean gaixotasun gehien sortzen dituztenak.

XXVI. Mahats Bilketaren Jaia Mendemarekin batera, saihestezina den hitzordua da Arabako Errioxan mahats bilketaren jaia.

Aurten, festak bere XXVI.edizioa beteko du, eta hitzordua Lantziegong izango da, irailaren 18an; urtero bezala, festa bereziak hartuko ditu herritar nahiz bertaraten diren kanpotarrak. Festa Arabako Errioxako Kuadrillako biztanleen ekimenez jaio zen, bertako produktu kuttunena goraiatzeko helburuarekin. Lehenengo ediziotik, egitura eta garapenean asko aldatu da, "baina urtero herri batean egiteak edizio bakoitza berezia eta bakarra bihurtzen du", azaldu dute antolatzaileek. Hala, herri bakoitzak bere ukitua ematen dio egun osoko egitarauari. Eta modu horretara, lortu da urtetik urtera antolaketan eskualde guztiek parte hartzea.

Pou anaiak pregoilari

Eneko eta Iker Pou dira aurten Arabako Errioxako Mahats Bilketaren Jaiaren pregoilariak. Eskalatazaleek Itziar de Alava Martinez de Icaya alkatearen gonbidapena jaso zuten, Perun zailtasun handiko bide berri bat egiten ari zirela. Lantziegoko festara deitzeko aukera "Arabako Errioxarekin dugun harreman estuagatik ilusioz beteriko aukera gisa" jaso dute. Arabako Errioxako ardoak beren bidaetan kontuan izaten dituztela azaldu dute, gainera: "Hego Amerikan aurkitu ditugu, baina orokorrean leku guztietatik ikusten ditugu. Gainera, kalitatezko ardoak egiteko leku pribilegiatu honetatik berrogei minutura bizi garelako esatea gustatzen zaigu".

Ohiko ekitaldiez gainera, XXIX. Ardo Lehiaketa egingo da. Ospe handiko ardo dastaketa da bere lehen ediziotik, eta errotze handia izan du enogastronomian. Gainera, Nekazaritza Ministerioak homologatu du. Edizioz edizio geroz eta upategi gehiagok parte hartzen du.



Pou Anaiak izango dira festaren pregoilariak. MAHATS BILKETAREN JAIA

Mahats-bilketaren XXVI. edizioa

10:30

- Arabako Errioxako dantza taldeen emanaldia.

11:00

- Pregoa eta ekitaldi ofiziala. Muztiaketa, eta lehenengo muztioaren dastaketa. Arabako Errioxako ardoen dastatzea (postuetan, Egibide-Mendizorrotza ostalaritza eskolako ikasleak arituko dira zerbitzatzen).

12:30

- Lantziegoko ardoen dastatze gidatuak.
- Aizkolarien txapelketa handia.

14:00

- Herri bazkaria.

16:30

- Pilota partidak.
- Egunean zehar umeentzako jolasak eta ekintzak, musika eta kalejira, artisauak eta labeldun nekazaritza-produktuak.